

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA (AJA) 2025-26 IKASTURTEA

CIFP Fraisoro Eskola LHII ikastetxe publikoa da eta honako printzipio hauek ditu:

- Ikaslearen garapen pertsonalari lagundu komunitate solidario batean.
- Ikaslearen giza heziketari lagundu, gure gizartean kritikoak eta sortzaileak izan daitezen.
- Ikasleari beharrezko ezagutzak eta teknikak irakatsi, etorkizunean beste ikasketa batzuk egitea edo lan munduan sartzea ahalbidetuko diotenak.
- Ezagutzak eta ikasteko nahiz lanerako ohiturak hartu.
- Askatasun pertsonala, eta oinarrizko eskubidea, betebeharra eta askatasuna sustatu.

Horregatik ezartzen dira arau horiek, [201/2008 DEKRETUA, abenduaren 2koa](#), “Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatez Kanpoko Ikastetxeetan ikasleen eskubide eta betebeharrak” arautzen dituen dekretuaren esparruan. Fraisoro Eskola LHII-n matrikulatzen den ikasleak, dokumentu honetako arau guztiak bete beharko ditu. Arau horietan jasotzen ez den zerbait suertatzen bada, zuzendaritza taldeak, batzorde pedagogikoa entzunda, ebatziko du, beti kontuan hartuta ikaslearen eskubideak.

BARNE ARAUDIA

1. Ikastetxearen antolamendu orokorra

1.1. Klaseen ordutegia honakoa izango da:

- Astelehenetik ostiralera, 8:00-14:30
** *Eskolaz kanpoko irteeretan ordutegia aldatu daiteke.*
- Furgoneta zerbitzua, 7:30- 7:55ak arte eta 14:35-14:45 arte.

1.2. Heziketa Zikloko ikasketek (Oinarrizko mailakoek, Erdi Mailakoek nahiz Goi Mailakoek) 2000 orduko iraupena dute, eta bi urtetan egingo dira.

1.3. Ikasturte hasieran honako informazioa emango zaio ikasle bakoitzari: eskola egutegia (eskola egunak, jaiegunak, oporraldiak, ebaluazioaldiak, eta Dual orokorra), klase ordutegiak, talde bakoitzaren tutoreak, Antolakuntza eta Jarduera Araudia, ebaluazioaldiak antolatzeko sistema, klase teoriko nahiz praktikoetara ekarri beharreko materiala, Agipad protokoloa (II. Eranskina) eta eskolako garraio zerbitzuari buruzko informazioa eta komunikazio politika.

2. Matrikulatzea

ARAUDIA: [1/2018 DEKRETUA, urtarrilaren 9koa, ikasleak onartzeko eta eskolatzeko prozedura arautzen duena.](#)

2.1. [86/2015 DEKRETUA, ekainaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Lanbide Heziketaren araubideari eta ezarpenari buruzkoa.](#)

Laburbilduta: a) 15 urte beteak izatea, edo dagokion urte naturalaren barruan betetzea, eta 17 urte baino gehiago ez izatea zikloan sartzean edo dagokion urte naturalean. b) DBH hirugarren ikasturtea edo, salbuespen gisa, DBH bigarren ikasturtea eginda izatea. c) Irakasle-taldeak gurasoei edo legezko ordezkariari Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo bat hastea proposatu izana.

2.2. Erdi Mailako Heziketa Zikloetan izena emateko baldintzak, laburbilduta: DBH graduatu-titulua, Oinarrizko lanbide-titulua, Batxilergoko-titulua, Unibertsitateko titulu bat, Lanbide Heziketako Teknikari edo Goi Teknikari titulua.

2.3. Goi-mailako Heziketa Zikloetan izena emateko baldintzak, laburbilduta: Batxilergoko-titulua, Lanbide-Heziketako teknikaria edo Goi teknikaria. Batxilergo Bateratu Balioanizduneko (BBB) Unibertsitateko titulu bat.

2.4. Erdi mailako Espezializazioan izena emateko: lehentasuna EMko Lorezaintza eta Loregintza zikloa egin duten ikasleek. Beste tituluren bat duten edo arlo honetan esperientzia duten ikasleek ere eskaera egin dezakete.

2.4 Matrikulatzerako orduan, ziklo bakoitzak dagokion tasa ordainduko du (aseguru tasak, irteerak, etab.).

3. Fraisoro Eskola LHII-ko komunikazio politika

3.1. Fraisoro Eskolan matrikulatzen den ikasleari, helbide elektroniko bat (xxxxxxx@ik.fraisoroeskola.eus) emango zaio. Ikasle bakoitzak segurtasuna bermatuz erabiliko du. Kontuan izanda ikasleek komunikazio tresna hau jasotzen dutela, eta hau izango dela eskolako komunikazio bide nagusia, helbide elektroniko bidezko mezuak irakurtzea eta mezuak horrela eskatzen duenean erantzutea ezinbestekoa izango da.

3.2. Ikasleak matrikula egiten duenean, datuen babeserako baimena eta irudi baimena sinatzeko aukera izango du.

4. Ebaluazioak:

4.1. Ebaluazio irizpideak: Ikasturte hasieran, irakasle bakoitzak idatziz emango dizkio ikasleei berak ematen dituen moduluen ebaluazio irizpideak, programazioarekin batera (helburuak, edukiak, ebaluazio irizpideak, eta ebaluazio sistema).

4.2. Ebaluazioei dagokienean, honako hau ezartzen da:

1LOE (OLH, EMLH eta GMLH)

- Ebaluazio ez ofizialak: 1. eta 2. Ebaluazioa
- Ebaluazio ofizialak: 1. Kurtsoko 1. Azkena eta 2. Azkena

2LOE (OLH, EMLH eta GMLH)

- Ebaluazio ez ofizialak: 1.Ebaluazioa eta 2.ebaluazioa
- Ebaluazio ofizialak:
 - 2. Kurtsoko 1. Azkena (+ gainditu gabeko 1. mailako moduluak)
 - 2. Kurtsoko 2. Azkena (+ gainditu gabeko 1. eta 2. mailako moduluak)

Moduluren bat errepikatu behar izatekotan, modulu osoaren azterketa edo/eta bestelako frogak egin beharko dira dagokion deialdietan.

4.3. Ebaluazio ez ofizialetan errekuperaketak arratsaldez izango dira, klase ordutegietatik at.

4.4. Ikasle guztiek dute deialdi ofizialetara aurkezteko eskubidea. **Azterketara ez**

agertzeak deialdi hori galtzea dakar (2010/1721 Aginduan zehazten duena izan ezik).

- 4.5. Heziketa Zikloak egiten ari diren ikasleek 4 deialdi ofizial izango dituzte modulu bakoitza gainditzeko (Oinarrizko, Erdi nahiz Goi Mailan). Gehienera 4 urteko epea izango dute ziklo osoa egiteko.
- 4.6. Ikasle guztiek dute eskubidea beren kalifikazioetan eragina izan dezaketen oro zuzenduta eta kalifikatuta ikusteko eta berrikusteko. Kalifikazio edo froga horiek banaka eta klase orduz kanpo ikusi ahal izango dira.
- 4.7. Kalifikazioak argitaratu eta ikasleei jakinarazten zaizkienetik, bi eskola eguneko epea izango dute azterketa edo ebaluatutako proba ikusteko. **Ebaluazio ofizialetan** moduluaren notarekin edo kurtsoz pasa-titulua jaso ebazpenarekin ikaslea ez badago ados [Barne erreklamazioa](#) jarri dezake ikasleak idazkaritzan (adin txikikoa bada guraso edo tutore legalak).

4.8. Berrikuspen eta Erreklamazio-prozedura:

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren 9.2 artikulua hau ezartzen du: ikastetxeek “azken kalifikazioaren gain eragina izango duten lanak, ariketak eta probak zuzendu ondotik ikusteko aukera bermatuko dute”. Ebaluazio ez-ofizialetan berrikuspena eskatu dezake irakasleak eta irakaslearekin hitzordua eskatu dezake ebaluatutakoa berrikusteko. Azterketa ofizialetan berrikuspena eskatu dezake eta ados ez badago Erreklamazioa eskatu dezake (eskaera idazkaritzan dago). Erreklamazio idatzia zuzendariak tutoreari helaraziko dio eta irakasle taldeari bilera deialdi bat egingo dio erreklamazioa aztertzeko eta erabakia zuzendariari helaraziko dio (erreklamazioan aztertu diren atalak atxikituko dira: azterketa 10a, programazioa, bileran hitz egingako gaien akta...). Erreklamazioa jaso eta 48hko epean erantzuna emango zaio. Ikaslea adin txikikoa bada bere guraso edo tutore legalek egin beharko dute erreklamazioa. ([V.Eranskina](#)).

- 4.9. Ebaluazio batzordeak kasu berezietan erabaki ahal izango du ikasle baten egoera akademikoa aldatzen den ala ez.
- 4.12. Probak, informeak, lanak, txostenak edo azterketak irakasleak paperean edo digitalki gorde beharko ditu, gutxienez 18 hilabetetan.
- 4.13. Lanbide Heziketaren Antolamenduari eta Integrazioari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Legea kontutan izanik, 1go eta 2. mailako ikasleek FP-DUAL orokorra egin beharko dute, salbuespenak kasu. Modulu bakoitzaren nota enpresa eta eskolaren artean hitzartutako proiektuaren ebaluazioan oinarrituta egongo da.

- 4.14. DUAL INTENTSIBOan ikasten duten ikasleek, 83/2015 DEKRETUA, ekainaren 2-koaren arabera arautuko dira. Modulu bakoitzaren nota enpresa eta eskolaren artean hitzartutako proiektuaren ebaluazioan oinarrituta egongo da. Ebaluazio irizpideak hasieratik jakingo ditu ikasleak.
- 4.15. DUAL orokorra ebaluatzeko irizpideak ikasle bakoitzari dagokion proiektuetan eta programazioetan zehaztuko da.
- 4.16. Ebaluazio-buletinak (ofizialak zein ez ofizialak) IKASGUNEAN argitaratuko dira. Adin txikikoen kasuan sarbidea, gurasoen erabiltzaile eta pasahitzarekin izango da.
- 4.17. Heziketa Ziklo baten titulua eskuratu ahal izateko, ikasleak modulu guztiak gainditu beharko ditu.

5. Ikasturtea errepikatzea

- 5.1. Erdi Mailako nahiz Goi Mailako Heziketa Zikloak egiten dituzten ikasleek ikasturtea errepikatu beharko dute 3 edo 3 modulu baino gehiago gainditu gabe badituzte, EDO gainditu gabe dituzten moduluen ordu kopurua 300 ordu baino gehiagokoa bada guztira. (VI.ERANSKINA).
- 5.2. Oinarrizko lanbide heziketaren kasuan, 86/2015 DEKRETUA, ekainaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Lanbide Heziketaren araubideari eta ezarpenari buruzkoa araudia aplikatuko da. (VI.ERANSKINA)

6. Klaseetara agertzea eta bizikidetza

- 6.1. Klaseetara agertzea eskola honetako ikasle guztien **betebeharra** da. (23. Artik. 201/2008 DEKRETUA).
- 6.2. Erdi nahiz Goi mailako zikloetan, modulu batean Ebaluazio jarraitako eskubidea mantendu ahal izateko, ikaslearen asistentzia ezingo da % **85a** baino gutxiago izan. Modulu baten orduen % **15** baino gutxiago gehiago eginez gero, ikasleak ebaluazio jarraitako eskubidea galduko du, baita aurreko ebaluazioetan zituen notak ere (azterketa, lanak, praktikak...), eta ondorioz azterketa ofizialetara joan beharko du modulu osoarekin.
- 6.3. DUAL orokorrean hutsegiteek eragina izan dezakete ikasleen Dual orokorreko proiektuko moduluetan eta ebaluazio jarraitako eskubidea galtzea eragin dezake.

- 6.4. Ikasleek zikloko derrigorrezko jarduera osagarrietan parte hartu behar dute, nahiz eta ohiko ordutegitik kanpo izan. Ez joatea hutsegitea izango da.
- 6.5. Tutoreak justifikanteak onartuko ditu ala ez, kasuaren arabera. Ez etortze justifikagarritzat hartuko dira:
- Mediku-kontsultak.
 - Betebehar saihestezin bat.
 - Gaixotasunak eragindakoak.
- 6.6. Salbuespenen bat dagoenean tutore bileran erabakiko da. Kasu hauetan guztietan dagokion agiri ofiziala ekarri beharko dio ikasleak tutoreari, falta egiten den egunetik 7 eguneko epean.
- 6.7. Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloetan ikasleak ezingo du hutsegiterik egin. Ikasleren batek egun edo orduren batean ezingo balu klasera etorri, gurasoak/tutore legalak aldeztu aurretik jakinarazi beharko dio tutoreari.
- 6.8. **Klase teoriko eta praktikoetan, ikasleek beharrezko segurtasuneko ekipamendua, tresnak edo/eta eskolako materiala eramango dute, eta bestela, ezingo dute klaseetara agertu edo irakasleak klasetik kanporatuko du eta ikasleak zaintzara joan beharko du.** Klaseetara ez agertze hori hutsegite bezala hartuko da.
- 6.9. **Klase teoriko eta praktikoetan, ikasleek ezin izango dute droga, alkohol nahiz antzeko sustantziarik kontsumitu ez eta beraien eraginpean egon.** Arau hori betetzen ez baldin bada, edo irakasleak susmorik baldin badu, irakasleak eskolako araudian zehaztutako prozedura jarraituko du (ikusi II. eranskina, Agipad) protokoloa).
- 6.10. **Klasetik kanporatua den ikasleak irakasle gelara joan behar du zaintzako irakaslearengana.**
- 6.11. **201/2008 Dekretuak, abenduaren 2koak, du Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko arauak eta bertan zehazten dira Bizikidetzaren aurkako jokabide desegokiak eta ondorioak.**
- 6.12. Ikasle guztiek dute eskubidea hezkuntza egokia jasotzeko ikastetxeako programazioaren barruan, eta lortu nahi diren helburuetarako baliabide egokiak izateko. Programazio horren berri ikasle guztiek jasoko dute lehenengo momentuan, batez ere, ebaluaziorako erabiliko diren irizpideak (konpetentzia tekniko zein zeharkakoak).

- 6.13. Ikasle guztiek dute eskubidea eskolako bizitzan eta kulturaren parte hartzeko. Eginkizun horretarako, **gela bakoitzak ordezkari eta ordezkariorde bat aukeratu**ko ditu ikasturte hasieran.
- 6.14. Ikasleek **ikastetxearekin lotutako langile eta ondasun guztiak errespetatu** beharko dituzte.
- 6.15. Ikasleek lagundu egin beharko dute irakaskuntzaren kalitatea hobetzen.
- 6.16. Eskola eta ikasleen arteko komunikazioa errazteko lan talde bat sortuko da. Lan talde horretan egongo dira geletako ordezkariak eta ikastetxeko zuzendaritza taldea. Talde hori hiru hilabetez behin bilduko da gutxienez. Ordezkariak jakinaraziko die ordezkatzeko duten ikasgelari jorratu diren gaiak eta hartu diren erabakiak.

7. Greba eta geldialdiak (IV. eranskina)

- 7.1. Ikastetxean izena emandako ikasleen aukera da. Ikastetxeko jarduerekin lotutako gaiei buruz edo gizarte gertaera oso garrantzitsuei buruz hitz egiteko helburua duena.
- 7.2. Gutxienez 48 ordu lehenago aurkeztu behar da zuzendaritzaren greba edo geldialdiaren deialdi ofiziala. Aurkeztu beharrekoa: deialdi ofizialaren kopia bat eta batzarra egiteko eskaera, data eta sinadurarekin.
- 7.3. Zuzendaritzak eskaera onartzen badu, batzarra egin daiteke. Eskaera onartzen ez bada, eskaera egin duenari erabakia justifikatu zaio.
- 7.4. **Batzarra KLASE orduetatik kanpo egingo da**, zuzendaritzaren erabakiz egoera oso bereziak diren kasuetan izan ezik. Batzar deialdiak, gai zerrenda bat izango du, eta eskolako tabloietan informatuko da. Adierazi beharrekoak dira:
- Batzarraren eguna, lekua eta ordua.
 - Aztertuko diren gaiak.
 - Deialdia egiten duten pertsonak edo/eta erakundeak
 - Batzarraren ondoren, bozketak bakoitzak bere klasean egingo ditu, dagokion tutorea (ezingo balu irakasle bat bertan dela) eta bozketaren emaitzak deialdia baino 24 ordu lehenago jakin arazi beharko ditu tutoreak ikasketaburuari.
- 7.5. Batzarretan parte hartzea eta botoa ematea librea eta borondatezkoa izango da, eta ikastetxean izena emandako ikasketetara agertzen den orok izango du eskubidea horretarako. Ikasleren batek bozketan parte hartu nahi ez badu, ezingo

du bozketa momentuan klasean egon. (Ikasle hori desbinkulatu bezela kontabilizatuko da bozketan).

7.6. **Quoruma eta indar loteslea:** Bozketaren emaitza baliozko izan dadin, quorum—a beharrezkoa da; gelako eguneroko jardueratan parte hartzen ari diren ikasleen erdia gehi bat. **Quorumera iristen ez bada ezin izango da bozketarik egin**, eta ezin izango da deialdi berdinerako beste botaziorik egin. Beraz, gela horretako deialdia bertan behera geldituko da.

7.7. **Botoen zenbaketa:** Bozketa amaitu ondoren, gela bakoitzean botoak zenbatuko dira. Emandako botoen batura, boto baliogabeak eta zuriak barne.

Greba deialdi bat dagoenean gelan egindako bozketan ateratzen dena errespetatu beharko dute bozketan parte hartu dutenek.

Bozketan parte hartu nahi ez duena desbinkulatutzat joko da. Desbinkulatuak bozketa egin aurretik izena eman beharko dute.

Greba edo geldialdietako hutsegiteak, faltak izango dira ([201/2008 Dekretua](#) , abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzkoa (EHAA, 2008-12-16), 23. Artikulua II.puntua).

7.8. **Tutoreak bozketaren emaitzaren akta** jasoko du honako datuekin:

- Eguna, lekua eta ordua.
- Bertaratu den ikasle kopurua, baiezkoko botoak, ezezko botoak, zuriak, baliogabeak, desbinkulatuak eta abstentzioak (horiek ez dira kontuan izango botoen % a zenbatzean).
- Bozketaren emaitza, proposamenari baiezkoa edo ezezkoa eman zaion adieraziz. Emaitza gela bakoitzeko izango da.

7.9. Tutoreak berehala ikastetxeko ikasketaburuari jakinaraziko dio dagokion dokumentuan.

8. Greba edo geldialdiak egitearen ondorioak

8.1. Greba egiteak ikastetxea uztea esan nahi du grebak dirauen bitartean.

8.2. Ikastetxeak zerbitzu guztiak edota gutxieneko zerbitzuak emango dizkie Grebarako deialditik desbinkulatu ondoren klasera datozen ikasleei soilik.

8.3. Ikastetxeak, greba egunean, aurreikusiak zeuden azterketa edota kontrolak egingo direla bermatuko du. Ikasleen eta dagokien irakasleen artean, baloratuko da azterketa edota kontrolen data aldatu daitekeen edo ez, deialdi ofizialetan izan ezik.

8.4. **Adin txikiko ikasleen kasuan, guraso/tutore legalaren baimen idatzia beharko dute. Idatzi hori, tutoreari eman edo bidali beharko zaio .**

9. Batzar informatiboak

9.1. Ikastetxean izena emandako ikasleen bilera informatibo bat da batzar informatiboa. Aurrez deitua izan behar du, eta ikastetxeko jarduerekin lotutako gaietara buruz edo gizarteko gertaera oso garrantzitsuei buruz hitz egiteko helburua du.

9.2. Batzarra KLASE eskola orduetatik kanpo egingo da, zuzendaritzaren erabakiz egoera oso bereziak diren kasuetan izan ezik. Gutxienez 24 ordu aurretik deialdiaren arrazoia jakinaraziko zaio zuzendaritzari.

9.3. Gai zerrenda bat izango da, eta dagozkien lekuetan eta ikastetxeko zuzendaritzan jarriko da. Adierazi beharrekoak dira:

- Batzarraren eguna, lekua eta ordua.
- Aztertuko diren gaiak.
- Deialdia egiten duten pertsonak edo/eta erakundeak.

10. Ikasketa bidaia

10.1. Ikasleek ikasketa bukaerako bidaia egin ahal izango dute 2. mailan.

10.2. Gehienera ere bi eskola egun erabili ahal izango dira, beti ere, hezkuntzarako interesa duten jarduerak egiten badira bidaietan. Ikasleekin ikastetxeko irakasle bat joango da, planifikatutako jarduerekin lotura gehien duen moduluko irakaslea ahal izanez gero. Ikasketa bidaia egiteko ikasleekin joateko irakaslerik ez badago, ezingo da eskola egun erabili.

10.3. Norberaren gauzei dagokienez, lapurreta, gauzak galtzea edo bestelako gertakariak izanez gero, ikastetxeak ez du ardurarik izango.

11. Arau Bereziak

- 11.1. **Erdi Maila eta Goi mailako zikloetan klase orduetan irakaslearen baimenik gabe, ez dago mugikorra edo ordulari adimenduna erabiltzerik.** Norbaitek erabiliko balu mobila itzali araziko zaio eta irakasleak esandako lekuan utziko du. Klasearen bukaeran jaso ahal izango du
- 11.2. **HLHko ikasleek egunero 8.00-14.30etara mobila edo/eta ordulari adimenduna irakasleak gelara eramango duen maletin batean utziko du, arau hau derrigorrezkoa da.** Maletin hau idazkaritzan utziko da klaseak amaitu arte. Azken orduko irakasleak klaseak amaitzean mobilak itzuliko dizkie ikasleei. **Debekatua dago mobila eta ordulari adimenduna klase orduetan edukitzea edota erabiltzea.** Arau hau ez betetzeak ikasleak ohartarazpena jasotzea dakar eta dagokion ondorioa.
- 11.3. **Portatil, tablet, e.a. ordu lektiboetan eskolako gaietarako soilik, eta beti ere irakaslearen baimenarekin erabil daitezke.** Bestelako erabilerarik izango balu, neurriak hartu daitezke.
- 11.4. **Gela bakoitzeko garbitasuna eta bertako gailuen ardura, gela bakoitzarena izango da.** Erabilera desagokirik balego, eta egilea(k) azaldu ezean, gela guztia izango da arduradun.
- 11.5. **Debekatua dago gelan JATEA edo EDATEA,** ura izan ezik.
- 11.6. **Debekatuta dago edozein motatako droga eta alkohola edukitzea eta kontsumitzea.** Arau hau ez betetzea hutsegite oso larria da eta II. Eranskineko AGIPAD protokoloa jarraituko dugu.
- 11.7. **Debekatua dago eskola eremuan erretzea edo bapeatzea.**
- 11.8. **Irteeretan eskolako garraioarekin bakarrik mugi daitezke ikasleak.**
- 11.9. **Ikaslea ikastetxean egoteko moduan ez balego eskolatik guraso edo tutore legaleak dei bat jaso dezake bere seme-alabaren bila etor dadin.** Ikaslea adin nagusikoa bada zuzenean bidaliko da etxera.
- 11.10. **Adin txikiko** ikasleren batek eskolako **ekintzetan parte hartzeko eskola eremutik ateratzeko** irteera hau egiteko **baimen dokumentua** guraso edo tutore legalak **sinatuta ekarri** beharko du ikasleak.

BARNETEGIKO ARAUDIA

(2025-2026)

CIFP Fraisoro Eskola LHII-k egitura akademikoa du, eta horrezaz gain, BARNETEGI zerbitzua ere eskaintzen du erdi nahiz goi mailako ikasleentzat, astelehenetik ostiralera, ikastetxetik urrun edo gaizki komunikaturik bizi diren ikasleentzat. Jangela zerbitzua dago barnetegian dauden ikasleentzat: gosaria asteartetik ostiralera, bazkaria astelehenetik ostiralera, eta afaria astelehenetik ostegunera.

Kolektibo bat elkarrekin egon eta bizitzeak antolamendua eskatzen du, eta arau batzuk bete eta errespetatzea. **Horretarako dago AJA araudia. Barnetegian izen emateak, antolamendu eta arau hauek onartzea dakar, eta gainera errespetatzeko konpromisoa ere hartzen du.** Horrela ez balitz, ikasleak beste egoitza edo egoteko leku batzuk bilatu beharko lituzke.

Egoitzaren **HELBURUA** ikasleek eskola honetan ikasteko beharrezko bitartekoak eskaintzea da, baina, horren ordainetan, barnetegian daudenek ikasketetan probetxamenduari eta interesari dagokienean ondoren zerrendatuko diren arau batzuk bete beharko dituzte, eta jokabide egokia izan behar dute egoitza eskubidea mantentzeko. **Gutxiengo hauetakoren bat ez betetzea nahikoa izango da ikasleek egoitza eskubidea galtzeko, kasuz kasu aztertuko da.**

- **Adin nagusiko ikasleek, justifikatu gabeko 18 hutsegite egiteak, barnetegitik kanporatzea ekarriko du. Adin txikikoen kasuan, justifikatu gabeko falta bakar batekin kanporatua izango da.** Egoera bakoitza kasuz kasu aztertuko da.
- Logelak garbi eta txukun eduki behar dituzte ikasleek (oheak eginda eta bakoitzak bere gauzak jasota), egunero logela garbitu ahal izateko. Hala ez bada, ikasleari abisu bat pasako zaio. Adin txikikoen kasuan, gurasoekin hitz egingo da. Hiru abisurekin, neurriak hartuko dira.
- **Barnetegiko geletan ezingo da egon klase orduetan**, erabat justifikatuak diren egoeretan izan ezik, hala nola, moduluren bat konbalidatua/gainditua izatea eta gaixorik egotea.
- **Goizeko 9:00-12:00ak bitartean ezingo dira geletara igo edota sartu**, barnetegiko garbitzeko tarteak izango baita.
- **Debekatuta dago edozein motatako droga eta alkohola edukitzea eta kontsumitzea. Arau hau ez betetzea hutsegite oso larria da, eta egoitzatik betirako botatzea ekarriko du.** AGIPAD protokoloa jarraituko dugu.

- **Barnetegian erretzea erabat debekatua dago.** Gelaren batean arau hausteren baten zantzurik balego, gela horretako ikasleak izango dira arau haustearen erantzuleak eta beraientzat izango lirateke ondorioak (III.eranskina). Denboraldi batean egoitza eskubidea galtzeko ondorioa izango du, kasuz kasu aztertuko da.
- **Ezingo da inolako objekturik jarri** (toailak, zapatak, loreontziak, etab.) egoitza barrutiko leihoetan.
- **Adintxikiko ikasleak ezin dira beste ikasleen kotxe partikularretan mugitu.** Beti ere gurasoen baimen idatzia ez badago.
- **Barnetegian ez dauden ikasleak ezingo dira egoitzako geletara (logeletara) sartu.** Arau hau betetzen ez denean ikasleek **ohartarazpen** bat jasoko du. Araua berriro ez betetzean, ohartarazpen larria izango da.
- Barnetegiko altzariak eta egoitzako beste gauzak behar bezala ez erabiltzeagatik izandako kalteak ordaindu egin beharko dituzte, bai konponketak bai material berriak, adierazitako moduan eta garaian. Kalteen erantzukizuna inork bere gain hartuko ez balu, konponketen gastuak logela, gela, egongela edota egoitzako kide guztien artean ordainduko dira, proportzionalki.

Ikasturte hasieran 200€ ko fidantza ordaindu beharko du lehenengo mailako ikasle bakoitzak eta ziklo amaieran, ezer berezirik ez bada, itzuli egingo da. Fidantza hau eskolako kontu korrontean transferentzia bidez ordaindu beharko da urriaren 1a baino lehen. Fidantza ez ordaintzeak barnetegiko plaza galtzea dakar.

Egoitzako hiruhilabeteko faktura 15 eguneko epean ordaintzen ez bada egoitzako plaza galdu daiteke.

Eskolatik atera nahi izanez gero, **barnetegiko arduradunari** jakinarazi beharko diote ikasleek. Baimen orri bat bete beharko dute, eta idazkaritzara eraman aurretik 16.00h-ak baino lehen. Adin txikiko ikasleek, gurasoen edota dagokion arduradunaren baimena beharko dute. Sukaldeko lanak antolatzeke, ikasleek aurrez abisatu beharko dute bazkaltzera edo afaltzera agertu behar ez badira. **Ikasleak 24h lehenago jakinarazten ez badu bazkaria edota afaria kobratuko zaio.**

Barnetegian dagoen ikasleren bat, **GAIXOTZEN** bada, **barnetegiko arduradunak** jakinaraziko du zuzendaritzan eta dagokion tutoreari pasako zaio abisua. Hurrengo egunean gaixorik jarraituko balu, ikasle horrek etxera joan beharko du eta etxekoek etorri beharko dute ikaslearen bila.

Greba egiten duten barnetegiko ikasleek ez dute ostatu eta jatordu zerbitzurik izango eta greba egunean ikastetxetik irten beharko dira. Nahiz eta ostatu eskubidea galdu, lo egiteko aukera greba deialdi kasu bakoitzean aztertuko da. **Geldialdia** egiten duten barnetegiko ikasleek, eta geldialdiak ordubete baino gehiago irauteaz gain azken klase orduari eragiten baldin badio, ezingo dute ikastetxean gelditu eta bazkaltzeko zerbitzua galduko dute.

Barnetegiko eta jangelako altak, bajak eta aldaketak idazkaritzan jakinarazi beharko dira hiruhileko berria hasi aurreko hamabost egunetan, eta beti ere idatziz.

Arratsaldean, eskola eremutik kanpo dagoen barnetegiko ikaslearen ardura ez da eskolarena. Gorabeheraren bat gertatuz gero, ikaslea da azken arduraduna eta bere etxekoekin jarri beharko da harremanetan.

Ikasle baten jokabidea ikastetxe nahiz barnetegiko bizikidetzarentzat larriki kaltegarria izan daitekeenean, eta jokabide hori ikaslea berarentzat edota gainerako kideentzat arriskutsua bada, eskolak bestelako neurri batzuk hartzeko eskumena du kasuan kasu. Egoitza eskubidea galtzeko aukera egongo da behin-behineko edo behin-betiko, kasuz kasu aztertuko da.

Barnetegiko ikasleren batek **3 ohartarazpen** (Anexo I) jasoko balitu, **barnetegian** egoteko **eskubidea galduko** luke.

Barnetegiko ikasleen **ORDUTEGIA** hau da:

07:30: Ohetik jaikiko dira

07:30-7:50: Gosaria (asteartetik ostiralera).

14:35-15:05: Bazkaria (astelehenetik ostiralera).

Kafea ez da sartzen.

20:00-20:15: Afaria (astelehenetik ostegunera). Jangela hutsik gelditu behar du 20:45tako.

23:30-00:00: Bakoitzari dagokion gelan egongo dira

00:00: Isiltasuna

JANGELAN puntualitatea eskatzen da eta autozerbitzu sistema erabiliko da.

Sukaldea antolatzeko barnetegiko ikasleren bat bazkarira edota afarira ez badator aurrez jakinarazi beharko du, gutxienez 24 ordu lehenago. Garaiz ez bada jakinarazten bazkaria kobratuko zaio.

Afariaren kasuan, justifikatuta dauden ekintzak badira, ikasleei beranduago afaltzeko afaria gordeko zaie.

Osasun araudia betetzeko, **ikasleek ezingo dute sukaldean eta alboko geletan sartu** eta egon.

Bestalde, ikasleek jarrera, ordena eta heziera egokia izan behar dute jangelan. Jangela garbi mantentzeko, **debekatuta dago praktiketako oinetako zikinekin bertan sartzea.**

JANGELAKO ARAUDIA

(2024-25)

Fraisoro Eskolak, egitura akademikoaz gain, egoitza zerbitzua ere eskaintzen du. Egoitza zerbitzu horretako zerbitzuetako bat JANGELA da.

Kolektibo bat elkarrekin egon eta bizitzeak antolamendua eskatzen du, eta arau batzuk bete eta errespetatzea. Horretarako dago antolamendu eta jarduera araudi hau. Edonola ere, norbaitek jangela zerbitzua erabiltzen duenean antolamendu eta arau hauek askatasunez onartzen dituela ulertzen da, eta gainera errespetatzeko konpromisoa hartzen duela.

JANGELAKO ORDUTEGIA:

13:45-14:15: astelehenetik ostegunera

14:35-15:05 astelehenetik ostiralera

JANGELAN puntualtasuna eskatzen da eta autozerbitzu sistema erabiliko da.


Osasun araudia betetzeko, ikasleek ezingo dute sukaldean eta alboko geletan sartu eta egon. Horrez gain, jangela garbi edukitzeko, **ezingo da praktiketako oinetako zikinekin sartu.**

Bestalde, ikasleek jarrera, ordena eta heziera egokia izan behar dute jangelan.

Jangelako altak, bajak eta aldaketak idazkaritzan jakinarazi beharko dira hiruhileko berria hasi aurreko hamabost egunetan, eta beti ere idatziz.

Ahal den neurrian, ikasleek jangela zerbitzua jasotzeko aukera izan dezakete. Zerbitzu honen eskaera eta ordainketa **IDAZKARITZAN egin beharko dute 24 ordu lehenago.**

I ERANSKINA: ANTOLAKETA



II ERANSKINA: ARDURAK

ARDURAK	FUNTZIOAK	ARDURADUNA
Nekazaritzako mintegiburua	Mintegi bilerak antolatu eta zuzendu, astean 1 h. /mintegiburu eta ZT bileretan parte hartu astean 1 h./ mintegiko proiektu koordinatu/ baliabide ekonomikoak kudeatu, ZTrekin batera.	
Oinarrizko mintegiburua		
Lorezaintzako mintegiburua		
Elikagaietako mintegiburua		
Goi mailako mintegiburua		
Orientazioko mintegiburua		
1 Nekazariak Oinarrizkoen tutorea	Ikasle taldearen kudeaketa	
2 Nekazariak Oinarrizkoen tutorea		
1 Nekazariak EM tutorea		
2 Nekazariak EM tutorea		
1 Lorezainak EM tutorea		
2 Lorezainak EM tutorea		
Espezializazioa		
1 Elikagaiak EM tutorea		
2 Elikagaiak EM tutorea		
1 Goi maila tutorea		
2 Goi maila tutorea		

III ERANSKINA: AGIPAD PROTOKOLOA

“Drogen abusuaren ikerketa eta prebentziorako gipuzkoar elkartea”

TESTUINGURUA:

Ikastetxea, bertako ikasle guztien ongizate fisiko, psiko eta sozialetaz arduratzen da, drogen kontsumoak ikaslearen ongizatean kalte egin dezakeela onartu eta konpartitzen du. Onartzen du aldi berean, drogen abusuaren aurrean babes faktoreekin erlazionatzen diren gaitasun, balore eta jarreretan eragin handia duela. Guzti honengatik, 2018/19 ikasturtean, gure ikastetxeko irakasle eta ikasleen ordezkaritza batek, drogen abusuaren inguruko hausnarketa eta protokolo adostua onartu genuen. Adostutakoa, 2019/20 ikasturtetik aurrera indarrean jartzeko asmoz.

Beraz, ikasleei zuzendutako zenbait programa abian jartzea beharrezkotzat ikusi da eta ondorengoak erabaki dira:

- 1.- Agipad elkartearekin droga kontsumoaren inguruko tailerrak egitea ikasleekin
- 2.- Baloreetan hezten programaren barruan adizioen inguruko hausnarketak bultzatzen dituzten ekintzak antolatzea.
3. Ikastetxean drogen kontsumoarekin erlazionatzen diren egoerak arautzea eta protokolo honetan dagoen “taula-araudia” betearaztea.

DIZIPLINA ARAUAK

Diziplina neurrien helburua ikasleen osasuna eta ikasteko gaitasunak babestea da, ikastetxe barnean edota ikastetxeak antolatutako klase teorikoetan eta praktikoetan drogak kontsumitzeko asmoa kenduz eta baita drogen eraginpean dauden bitartean eta, batez ere, praktikan izan dezakeen arriskuez jabetzeko.

Ikastetxeak drogen erabileraren debekua du bertara hurbiltzen diren pertsona guztientzat.

Arau-haustea bi motatakoak izan daitezke:

- Drogen jabetza
- Drogen intoxikazioa

AGIPAD PROTOKOLOAREN “ARAUDI-TAULA”

	JARRERA DESEGOKIA eta ONDORIOAK: DROGAK IZATEA	JARRERA DESEGOKIA eta DROGENGATIK
Fraisoro Eskolako eremuan, ikasle batek, Agipad protokoloan adostutako “jarrera desegokia” azaltzen badu, adostutako “ondorioak”.	Eskolako bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabidea dela adierazten zaio ikasleari eta dagokion ohartarazpena jasoko duela jakinarazten zaio. Adin txikikoa bada, familiarari ere jakinaraziko zaio.	*Drogen eraginpean eta eskolako eta bere jardunean arriskua jakinarazten zaio ikasleari *Gelatik edota praktika lekutik jo *Goiz horretako orduetako asist utzi beharko du. Adin txikikoa etortzeko eskatuko zaio.
	Neurri zuzentzaileak ezartzerakoan lehentasuna izango dute lan sozialak eginez orduak betetzea (Fraisoro Zahar egoitzan, Uliazpe egoitzan... lan soziala egitea). Azken aukera izango litzateke zehaztutako denboraldi baterako kanporatua izatea.	Intoxikazio-gradua hand ziurtatzeko eta adin txikikoa bada deituko zaio bere bila etortzeko. I ikasleak esandako pertsonari deit

		* Ikaslea ados ez badago, kontrakoa frogatu eta ondo dagoenaren egun bereko agiria eskatu. * Hurrengo egunean, ikasleari jakinaraziko zaio kalte larria eragiten dioten jokabidea ohartarazpena jasoko du. * Neurri zuzentzaileak ezartzerakoan, sozialak eginez orduak betetzea (Fraisoro egoitzan... lan sozila egitea). Azken aukera denboraldi baterako kanporatua izatea. * Beharrezkoa ikusten bada, eta ikasleak balu, aholkularitza eskaini ikasleari.
--	--	--

IV ERANSKINA: DIZIPLINA ARAUAK

201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.

Dekretu honen, printzipio orokorrak (50.art) dira:

1. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak zenbait betebeharrak ezarri dizkie ikasleei. Ikasleek betebeharrak ez betetzea, gutxienez, jokabide okertzat hartuko da beti. Hutsegite hori, halaber, bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabide edo bizikidetzaren kontrako jokabide izan daiteke, baldin eta haren bidez hezkuntza komunitateko gainerako kideei beren eskubideak betetzea galarazten bazaie, edota hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak zuzenean urratzen badira.
2. Betebeharrak ez direla ikusten duen irakasleak edo administrazio edo zerbitzu-erakundeak esku hartu beharko du derrigor. Horrenbestez, bizikidetzarekin bat ez datorren jokabidea zuzendu beharko du, betiere, arestian aipaturiko Dekretuan nahiz araudi honetan ezarritakoarekin bat etorritik.

IKASLEEN ADINARI EGOKITZEA, JOKABIDE DESEGOKIAK, BIZIKIDETZAREN AURKAKOAK ETA BIZIKIDETZARI KALTE LARRIAK ERAGITEN DIZKIOTENAK

IKASLEEN ADINARI EGOKITZEA (29. artikulua)

3. Salbuespen gisa, ikaslearen jokabidea ikastetxeko bizikidetzarentzat larriki kaltegarria izan daitekeenean, eta jokabide hori ikaslearentzat edota hezkuntza komunitateko gainerako kideentzat arriskutsua bada, zuzendariak ohiko prozedura erabili eta dekretu honetan jokabide horiek zuzentzeko ezarri diren neurriak aplikatu ahal izango ditu, betiere, Hezkuntzako Ikuskaritzari aurrez jakinarazpena igorritz.

JOKABIDE DESEGOKIAK (30. artikulua)

- a) Justifikatu gabeko puntualtasun-hutsegiteak.
- b) Justifikatu gabeko hutsegiteak. ***
- c) Ikastetxeko instalazioei, ikastetxeko materialari edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei narriadurak eragitea, zabarkeriagatik gertatzen denean.
- d) Irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa ez betetzea, betiere ikasleak haiek mespretxatzen eta iraintzen ez baditu edo diziplina nahita hausten ez badu; baita ikastetxeko gainerako langileek beren jardunean emandako aginduei jaramonik ez egitea ere.
- e) Hezkuntza Komunitateko kideen aurkako adeitasunik ezako jarrera, keinu edo hitzak.
- g) Ikastetxeko ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo edozein motatakoa) baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.
- h) Eskolako eremuan erretzea
- I) Unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko abenduaren 2 ko 201/2008 dekretuko 30 artikuluan zehaztutako beste edozein jokabide.

JOKABIDE DESEGOKIEN ZUZENKETA (34. artikulua)

- a) Izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa.
- b) Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea.
- c) Jokabide-eredu egokiak ikasteko eta barneratzeko jarduerak egitea.
- d) Jokabide desegokiaren nolakotasunarekin zerikusia duen zereginen bat egitea.
- e) Kargu-hartze idatzia

BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK (31. artikulua)

- a) Ikastetxeetako kide bakarreko aginte-organoen edo irakasleen aginduak eta ikastetxeko gainerako langileek beren eginkizunen jardunean emandako aginduak ez betetzea, betiere horrekin batera diziplinari eza agertzen bada edo irainak, mespretxuak, desafioak edo mehatxuak egiten badira.
- b) Ikaskideen edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako mehatxuak edo irainak.

BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEEN ZUZENKETA (35. artikulua)

- a) Bizikidetzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak.
- b) Kargu-hartze idatzia.

e) Kalteak eragitea bidegabeko erabileragatik ikastetxeko lokalei, altzariei, materialari edo dokumentuei, edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei.

f) Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak hartutako baliozko erabakiak nahita ez betetzea.

g) Pertsonak ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, baimena eman gabe grabazio-baliabideak erabiliz.

j) Hezkuntza-komunitateko edozein kiderengan lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak zuhurtzearik gabe erabiltzea.

l) Diskriminazioa dakarren edozein egintza edo jokabide, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial. Betiere bizikidetzan kalte larria eragiten duen jokabidetzat hartzen ez bada.

n) Aurreko artikuluan adierazitako jokabide desegokiren bat errepikatzea.

Unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko abenduaren 2 ko 201/2008 dekretuko 31 artikuluan zehaztutako beste edozein jokabide

c) Kargu-hartzea, ikasleen gurasoak edo lege- ordezkariak bertan direla.

d) Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edo behin betiko.

e) Lan hezigarriak edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea, edo hala badagokio, ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak; betiere, hiru hilabetez gehienez ere..

f) Gai bateko edo batzuetako eskoletara joateko eskubidea eta jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko nahiz zerbitzuak jasotzeko eskubidea etetea. Eskubide-etendura horrek ezingo du hiru egun baino gehiago iraun.

g) Unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko abenduaren 2 ko 201/2008 dekretuko 35 artikuluan zehaztutako beste edozein neurri.

BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA

BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA


ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEAK (32. artikulua)

ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEEN ZUZENKETA (36. artikulua)


a) Ikastetxeetako gobernu-organoekiko edo beren eskumenak betetzen diharduten irakasleekiko diziplinarik ezako egintza edo obediencia-ukatzeko esplikitu guztiak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne, baita hezkuntza-komunitateko kideen aurkako adierazpen oso laidoak edo iraingarriak ere, laido edo irain horiek edozein modutan adierazita ere: ahoz, idazki bidez, edo baliabide informatikoak edo ikus-entzunezkoak erabiliz.

1. Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko, aurreko artikuluan bildutako neurri bat edo gehiago aplikatuko ditu zuzendariak, eta, horiez gain, honako hauetako edozein:

b) Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.	a) Lan hezigarriak eskola-ordutegitik kanpo egitea, edo ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, edo, hala badagokio, eragindako kalte materialak konpontzeko lanak, betiere sei hilabetez gehienez ere.
c) Jazarpen sexista, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerakok, ezarritako definizioa aintzat hartuta.	b) Arlo edo irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara joateko eskubidea etetea hiru eskola- egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.
d) Hezkuntza-komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisiko edo psikologikoa.	c) Ikastetxera joateko eskubidea etetea hiru eskola- egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko; betiere, lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.
e) Ikastetxeko hezkuntza-komunitateko kideak beren osasunerako eta osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jokaerak egitera bultzatzea, hala nola tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzera bultzatzea.	3. Ikasleren bat, aurretiaz, zuzendua izan bada ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak izateagatik, ikasle horrek ikastetxean duen matrikula baliogabetu egingo da, eta baja emango zaio ikastetxe horretan.
h) Nahita kalteak eragitea ikastetxearen instalazioetan edo ondasunetan, ikastetxeko langileei, beste ikasle batzuei edo beste pertsona batzuei, bai bakarka. bai taldean.	4. Unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko abenduaren 2 ko 201/2008 dekretuko 36 artikuluan zehaztutako beste edozein neurri
i) Aurreko artikuluan adierazitako bizikidetzaren aurkako edozein jokabide errepikatzea	
j) Unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko abenduaren 2 ko 201/2008 dekretuko 32 artikuluan zehaztutako beste edozein jokabide	



EVALUACIÓN, PASO DE CURSO Y PROMOCIÓN DE LOS CICLOS LOE
(ORDEN 19 DE FEBRERO DE 2010 // BOPV DE 24 DE MARZO DE 2010)



OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA

NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO JARDUERETAKO OINARRIZKO PROFESIONALA

1. MAILA

3051	Lurra prestatzeko, landatzeko eta laboreak ereiteko eragiketa osagarriak	198 h
3052	Laboreak lortzeko eta berriz biltzeko eragiketa osagarriak	297 h
3114	Abeltzaintzako ekoizpena maneiatzeko oinarritzko eragiketak	132 h
3009	Zientzia aplikatuak I	165 h
3011	Komunikazioa eta gizartea I	165 h
	Tutoretza eta orientazioa I	33 h

2.mailara PROMOZIONATZEN du: Modulu tekniko guztiak gaituta (modulu teknikoen %20a da, eta hori edozein modulu tekniko gaitu gabe pasa egiten da orduz) eta gutxienez zeharkako modulu bat gaituta eta bi modulu hauen batezbestekoa gutxienez 4 ptu. izanda.

1. Maila errepikatzen du, baina UTZITAKO MODULUEKIN soilik: Ikasturte horretako orduen %50 edo gutxiago gaitu gabe utzita (irakasle taldeak erabaki ezker, gaitutako klaseetara joaten jarraitu dezake errefortzu moduan)

1. Maila OSORIK errepikatzen du: ikasturteko orduen %50 baino ordu gehiago uzten baditu.

2.MAILA

3111	Nekazaritzako elikagaien lehengaiak ontziratzea eta banatzea	144 h
3113	Abereak hazteko eta elikatze eragiketa osagarriak	144 h
3115	Abeltzaintzako instalazioetako mantentze- eta higiene-eragiketa osagarriak	72 h
3059	Zientzia aplikatuak II	144 h
3012	Komunikazioa eta gizartea II	168 h
E800	Lanerako prestakuntza eta orientabidea	53 h
3117	Prestakuntza lantokietan (FCT)	260 h
	Tutoretza eta orientazioa II	25 h

TITULUA LORTZEN DU: Ikasturteko 2 deialdi ofizialen ondoren dena gaitu badu.

2. Maila errepikatzen du, baina UTZITAKO MODULUEKIN soilik: Ikasturte horretako orduen %50 edo gutxiago gaitu gabe utzita (irakasle taldeak erabaki ezker, gaitutako klaseetara joaten jarraitu dezake errefortzu moduan)

2. Maila OSORIK errepikatzen du: ikasturteko orduen %50 baino ordu gehiago uzten baditu.

**** Kasuan-kasu, irakasle taldeak ikasle bakoitzaren egoera aztertuko du erabakiak hartzerako garaian.**

VII. eranskina: HLHko JARRERA ARAUDIA

1. Gelan jarrera desegokia izanez gero, irakasleak lehenengo abisua emango dio ikasleari.
2. Jarrera desegokiak jarraituz gero, irakasleak bigarren abisua emango ikasleari.
3. Jarrera desegokiak jarraituz gero, irakasleak ikaslea kanporatu egingo du:
 - Ikaslea orientatzailearekin edo beste irakasle batekin joango da **idazkaritza ondoko zaintza** gelara.
 - Bertan bakarka jarraituko du gelan lantzen ari diren gai edo lanekin.
 - Ezingo da ikasgai horretako saiora itzuli **egun horretan????**. Irakasleak esan arte?
 - Lanak bukatzen ez baditu, ezingo du saio praktikoetan parte hartu lanak amaitutzat eman arte. Kasu horretan irakaslearekin egongo da lanak bukatu arte.?????? Lanak bukatzen ez baditu, hurrengo saiorako eginda ekarri beharko ditu Eta ez baditu ekartzen?
4. Eduki prozedimentaletan araudiko 1 eta 2. puntuak hartuko dira kontuan eta 3. abisuan praktikatik kanporatua izango da.
5. Kanporatzearekin batera Ohartarazpen bat jasoko du ikasleak.

LABURBILDUZ:

1. abisua → 2. abisua → **3. abisua = GELA EDO PRAKTIKATIK KANPORATUA eta OHARTARAZPENA**

3 OHARTARAZPEN JASOTZEN BADITU IKASLEAK 3 EGUNERAKO ETXERATUA

IZANGO DA GUTXIENEZ.

BERANDUTZE PROTOKOLOA:

Ikasle bat irakaslea gelan sartu eta 5' beranduago iristen bada "berandutzea" jarriko zaio eta zaintzara joan beharko du hurrengo klasera arte. 20' beranduago iritxiko balitz "hutsegitea" jarriko zaio eta zaintzara joan beharko du hurrengo klase ordura arte.